# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**4705**

**65/2008 FORU DEKRETUA, Diputatuen Kontseiluarena, uztailaren 1ekoa, berraztertzeko errekurtsoa berriro ikusteko eta bermeak itzultzeko prozedura bereziak arautzen dituen arautegia onartzen duena.**

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren onarpenak zerga arautegia berritu eta eguneratu du: kontzeptu eta figura berriak sartu dira eta lehengoak Zerga Administrazioak bere egitekoetan aplikatzen dituen prozedura arauetara egokitu dira. Arau horretako V. tituluan administrazio bidean berrikusteko prozedurak jaso dira, bai eta interesdunek aurkezten dituzten errekurtsoak eta erreklamazioak.

Aurreko titulu hori garatzeko, foru dekretu honek berraztertzeko errekurtsoa berriro ikusteko eta bermeak itzultzeko prozedura bereziak arautzen dituen arautegia onartzen da. Arautegiak bost titulu, lau xedapen gehigarri eta bi xedapen iragankor dauzka.

I. tituluan ondokoak ezarri dira: xedapen orokorrak, aplikazio eremua, eskabidearen edo prozedura hasteko idazkiaren edukia, akatsak zuzentzeko prozedura eta ordezkari bidez aritzeko modua.

II. tituluan (“Berrikuspenerako prozedura bereziak”) ondokoak ezarri dira: Zuzenbidean erabat deusezak diren egintzak berrikusteko prozedura, interesdunen aldeko egintza deuseztagarriak kaltegarritzat hartzeko prozedura, ezeztatzeko prozedura, akatsak zuzentzeko prozedura eta oker sartutako dirua itzultzeko prozedura.

III. tituluan berraztertzeko errekurtsoa garatu da; honelako errekurtsoa jartzea prozedura azkarra da zergen aplikazioan gertatzen diren desadostasunak aurkaratzen den egintza eman duen administrazioko organo beraren aurrean konpontzeko.

IV. tituluan errekurritutako egintzen etetea landu; bost kapitulu daude. Lehenengoan aurkaratutako egintzaren betearazpena bermerik jarri gabe nola eteten den arautu da. Hurrengo kapituluetan kasu hauek bildu dira: Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aurreikusitako bermeak behar dituen etendura automatikoa, bestelako bermeak behar dituen etendura, eta bermerik jarri behar izan gabe eteteko aukera. Azken kapituluan eteteari buruzko xedapen orokorrak ezarri dira.

Azkenik, V. tituluan ebazpenen betearazpena eta bermeen kostuak itzultzea arautu dira.

Gai honen inguruan Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena eta Kontsultarako Batzordeak egin duena aztertu dira.

Beraz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta gero, hauxe

XEDATU DUT:

**I. TITULUA**
**XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua.- Aplikazio eremua.

1. Foru dekretu honen bidez Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra garatu da (hemendik aurrera Zergei buruzko Foru Arau Orokorra) ondokoei dagokienez: administrazio bideko berrikuspena eta Administrazioak egintzen betearazpena eteteko jarritako bermeen kostua itzultzea.

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**4705**

**DECRETO FORAL 65/2008, del Consejo de Diputados de 1 de julio, que aprueba el Reglamento regulador de los procedimientos especiales de revisión, del recurso de reposición y reembolso del coste de garantías.**

La aprobación de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, ha supuesto una renovación y actualización de las disposiciones tributarias, incluyendo nuevos conceptos y figuras, y adecuando las ya existentes a las normas de procedimiento que debe aplicar la Administración tributaria en el ejercicio de sus funciones. Dicha Norma en su Título V, recoge los procedimientos de revisión en vía administrativa, incluyendo también los recursos y reclamaciones que el interesado puede presentar.

Al objeto de desarrollar el Título anteriormente mencionado, mediante el presente Decreto Foral se aprueba el Reglamento regulador de los procedimientos especiales de revisión, del recurso de reposición y del reembolso del coste de las garantías. Este Reglamento se compone de cinco Títulos, cuatro Disposiciones Adicionales y dos Disposiciones Transitorias.

El Título I recoge las disposiciones de carácter general, el ámbito de aplicación, el contenido de la solicitud o escrito de iniciación, el procedimiento para la subsanación de deficiencias y la actuación mediante representante.

El Título II, “Procedimientos especiales de revisión”, recoge bajo esta rúbrica procedimientos como el de revisión de actos nulos de pleno derecho, la declaración de lesividad de actos anulables favorables a los interesados, la revocación, la rectificación de errores y la devolución de ingresos indebidos.

El Título III desarrolla el recurso de reposición, configurándose como un procedimiento ágil para tratar de resolver, ante los mismos órganos de la Administración que dictaron el acto que se recurre, las discrepancias que puedan surgir con motivo de la aplicación de los tributos.

El Título IV se dedica a la suspensión del acto recurrido y se divide en cinco Capítulos. El primero de ellos regula la suspensión de la ejecución del acto impugnado sin necesidad de aportar garantías. Los siguientes Capítulos recogen los casos de suspensión automática con las garantías previstas en la Norma Foral General Tributaria, la suspensión con otras garantías y la posibilidad de suspensión con dispensa de garantías. El Capítulo final está dedicado a las disposiciones comunes a la suspensión.

Por último, el Título V regula la ejecución de las resoluciones, así como el reembolso del coste de las garantías.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

**TÍTULO I**
**DISPOSICIONES GENERALES**

Artículo 1.- Ámbito de aplicación.

1. El presente Decreto Foral desarrolla la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava -en adelante Norma Foral General Tributaria-, en materia de revisión en vía administrativa, así como el reembolso por la Administración del coste de las garantías aportadas para suspender la ejecución de un acto.

2. Foru dekretu honen arauen eraginpetik kanpo daude erreklamazio eta errekurtso ekonomiko-administratiboak; hauei Arabako Lurralde Historikoko erreklamazio ekonomiko administratiboen prozedurari buruzko araudia onartu duen urtarrilaren 3eko 2/2007 Foru Dekretua aplikatuko zaie.

3. Foru dekretu hau Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz aplikatuko da.

2. artikulua.- Eskabidearen edo prozedura hasteko idazkiaren edukia.

1. Foru dekretu honetan araututako prozedurak interesdunaren eskariak eraginda hasten direnean, eskabidean edo prozedura hasteko idazkian ondokoak agertu behar dira:

a) Interesdunaren izen-abizenak edo sozietatearen izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta egoitza. Ordezkari baten bitartez jardunez gero, aurreko datu berak adierazi behar dira, baina ordezkariarenak.

b) Errekurtsoa edo erreklamazioa aurkezten zaion edo prozedura hasteko eskatzen zaion organoa.

c) Aurkaratu nahi den administrazio egintza edo jarduketa, edo espedientearen xede dena; hura eman zen eguna, espedientearen zenbakia eta espedienteari buruzko gainerako beste datu jakingarri batzuk.

d) Zer eskatzen duen interesdunak.

e) Interesdunaren egoitza jakinarazpenetarako.

f) Idazki edo eskabidearen lekua, data eta sinadura.

g) Itzulketa eskatzen denean, eskatzailearen banku kontuaren zenbaki osoa eman behar da, dirua bertan sartzeko. Idazkian kontuaren zenbakia agertu ezean, itzultzen den kopurua Ogasun. Finantza eta Aurrekontu Sailaren datu basean ageri den eskatzailearen banku kontuan ordainduko da.

h) Araudi aplikagarrian ezarritako beste zernahi.

2. Eskabideak edo prozedura hasteko idazkiak aurreko 1. idatz zatian aipatutako betekizunak betetzen ez baditu, foru dekretu honetan akatsak zuzentzeko ezarritako arau bereziak eragotzi gabe, interesdunari agindeia egingo zaio akatsa zuzendu dezan edo behar diren agiriak aurkeztu ditzan 15 eguneko epealdian, agindeia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta ohartaraziko zaio agindeiari jaramonik egin ezean jarduketak artxibatuko direla eta eskabidea edo idazkia aurkeztu gabekotzat joko dela.

3. artikulua.- Ordezkaritza.

1. Ordezkariaren bitartez jarduten denean, ordezkariak behar adinako ordezkaritza daukala frogatu behar du, hurrengo idatz zatian berrespenari buruz xedatutakoa eragotzi gabe.

2. Organo eskudunak 10 eguneko epealdia ezarriko du, agindeia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, ordezkaritza frogatzen duen agiria aurkezteko edo agiri horren akatsak zuzentzeko. Epealdi berean interesdunak aukera izango du ordezkariak beraren izenean egindako jarduketa berresteko eta hurrengo jarduketei begira ordezkaritzaren egiaztagiria aurkezteko.

## II. TITULUA
## BERRIKUSPEN PROZEDURA BEREZIAK

### I. KAPITULUA
### ZUZENBIDEAN ERABAT DEUSEZAK DIREN EGINTZAK BERRIKUSTEKO PROZEDURA

4. artikulua.- Prozedura hastea.

1. Zuzenbide osoz deusezak diren egintzak berrikusteko prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta has daiteke, hau da, egintza eman duen organoaren edo goragoko baten erabakiaren bidez edo interesdunak eskaturik. Azken kasu horretan, egintza baten berrikuspena eskatu nahi denean, hura eman duen organoari bidali behar zaio idazkia. Ofiziozko hasiera interesdunari jakinaraziko zaio.

2. Prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak berrikuspen eskaerak izapidetzeko ez onartzea erabaki ahal izango du, arrazoiak azalduta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 224. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako kasuetan.

2. Quedan fuera del ámbito de regulación de este Decreto Foral las reclamaciones y los recursos en vía económico-administrativa, que se regirán por el Decreto Foral 2/2007, de 30 de enero, que aprueba el Reglamento regulador en el Territorio Histórico de Álava del procedimiento de las reclamaciones y recursos en vía económico-administrativa.

3. El presente Decreto Foral será de aplicación en los términos previstos en el artículo 1 de la Norma Foral General Tributaria.

Artículo 2.- Contenido de la solicitud o del escrito de iniciación.

1. Cuando los procedimientos regulados en este Decreto Foral se inicien a instancia del interesado, la solicitud o el escrito de iniciación deberá contener los siguientes extremos:

a) Nombre y apellidos o razón social completa, número de identificación fiscal y domicilio del interesado. En el caso de que se actúe por medio de representante, se deberán incluir las mismas menciones referidas a éste.

b) Órgano ante el que se formula el recurso o reclamación o se solicita el inicio del procedimiento.

c) Identificación del acto administrativo o actuación que se impugna o que es objeto del expediente, fecha en que se dictó, número del expediente y otros datos relativos al mismo que se consideren convenientes.

d) Pretensión del interesado.

e) Domicilio que el interesado señala a los efectos de notificaciones.

f) Lugar, fecha y firma del escrito o de la solicitud.

g) En el supuesto de solicitud de devolución deberá hacerse constar expresamente el número completo de la cuenta bancaria del solicitante en la que se desee que se realice el ingreso. Cuando el mismo no figure en el escrito, la devolución se abonará, en su caso, en un número de cuenta bancaria del solicitante que conste en las bases de datos del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

h) Cualquier otro extremo establecido en la normativa aplicable.

2. Si la solicitud o el escrito de iniciación no reúne los requisitos señalados en el apartado 1 anterior, y sin perjuicio de las normas especiales de subsanación contenidas en este Decreto Foral, se requerirá al interesado para que, en un plazo de 15 días contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos con indicación de que la falta de atención a dicho requerimiento determinará el archivo de las actuaciones y se tendrá por no presentada la solicitud o el escrito.

Artículo 3.- Representación.

1. Cuando se actúe por medio de representante, éste deberá acreditar representación bastante, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente respecto a la ratificación.

2. El órgano competente concederá un plazo de 10 días contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para la aportación o subsanación del documento acreditativo de la representación. En este mismo plazo el interesado podrá ratificar la actuación realizada por el representante en su nombre y aportar el documento acreditativo de la representación para actuaciones posteriores.

## TÍTULO II
## PROCEDIMIENTOS ESPECIALES DE REVISIÓN

### CAPÍTULO I
### PROCEDIMIENTO DE REVISIÓN DE ACTOS NULOS DE PLENO DERECHO

Artículo 4.- Iniciación.

1. El procedimiento de revisión de actos nulos de pleno derecho podrá iniciarse de oficio, por acuerdo del órgano que dictó el acto o de su superior jerárquico, o a instancia del interesado. En este último caso, el escrito se dirigirá al órgano que dictó el acto cuya revisión se pretende. El inicio de oficio será notificado al interesado.

2. El órgano competente para tramitar el procedimiento podrá dictar acuerdo motivado de inadmisión a trámite de las solicitudes de revisión en los supuestos previstos en el apartado 3 del artículo 224 de la Norma Foral General Tributaria.

5. artikulua.- Izapidetzea.

1. Prozedura izapidetzeko eskumena berrikusi beharreko egintza eman duen organoak edukiko du.

2. Prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak beharrezkotzat jotzen dituen datu edo aurrekari guztiak eskatu ahal izango ditu ebazpen proposamena egiteko.

3. Interesdunak eta dena delako egintzaren bidez eskubideak aintzatetsi edo interesak ukitu zaizkien gainerako pertsonek administrazio espedientea eskura izango dute 15 egunetan, epealdiaren hasiera jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, nahi dituzten alegazio, agiri eta froga guztiak aurkeztu ditzaten.

4. Interesdunak entzuteko izapidea amaiturik, prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak ebazpen proposamena bidaliko dio ebazteko eskumena daukan organoari.

6. artikulua.- Ebazpena.

1. Ebazpen proposamena jaso ondoren, Arabako Foru Aldundiaren Aholku Batzordeari irizpena emateko eskatuko zaio.

2. Aholku Batzordearen irizpena aldekoa izatea ezinbestekoa da egintza deusez adierazteko.

3. Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko eremuan, Diputatuen Kontseiluari dagokio honelako prozedurak ebaztea.

II. KAPITULUA
EGINTZA DEUSEZTAGARRIAK KALTEGARRITZAT HARTZEKO PROZEDURA

7. artikulua.- Prozedura hastea.

Antolamendu juridikoa nolabait hausten duten interesdunen aldeko egintzak eta ebazpenak kaltegarritzat jotzeko prozedura ofizioz hasiko da Ogasun zuzendariaren edo maila bereko beste arduradun baten ebazpenaren bitartez, interesdunaren ekimenez edo egintza eman duen organoak, edo beraren hierarkiako nagusiak, proposatuta. Prozedura honen hasiera interesdun guztiei jakinaraziko zaie.

8. artikulua.- Izapidetzea.

1. Prozedura izapidetzeko eskumena berrikusi beharreko egintza eman duen organoak edukiko du. Honek ebazpenean kontuan hartu beharreko aurrekariei buruzko txostena egingo du.

Gainera, prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak beharrezkotzat jotzen dituen datu, aurrekari eta txosten guztiak eskatu ahal izango ditu ebazpen proposamena egiteko.

2. Administrazio espedientea interesdunen eskura egongo da 15 egunetan, epealdiaren hasiera jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, nahi dituzten alegazio, agiri eta frogak aurkeztu ditzaten.

3. Entzunaldiko izapidea amaitutakoan, prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak, ebazpen proposamena egin aurretik, egintza kaltegarri adieraztearen bidezkotasunari buruzko txostena egin dezala eskatuko dio lege aholkularitzako eskumenak dauzkan organoari.

4. Ebazpen proposamena egin ondoren, proposamena eta espediente osoa ebazteko eskumena daukan organoari bidaliko zaizkio.

9. artikulua.- Ebazpena.

1. Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko eremuan, Diputatuen Kontseiluari dagokio egintzen kaltegarritasuna adieraztea.

2. Egintza bat kaltegarria dela adieraziz gero, ebazpena eta administrazio espedientea bidaliko zaizkio organo eskudunari, gero administrazioarekiko auzien bidean aurkaratzeko. Arabako Foru Aldundian, organo hau Lege Aholkularitza Zerbitzua da.

**III. KAPITULUA**
**EZEZTATZEKO PROZEDURA**

10. artikulua.- Prozedura hastea.

1. Egintza bat ezeztatzeko prozedura ofizioz soilik has daiteke. Hala ere, interesdunek idazkia bidal diezaiokete egintza eman duen organoari prozedura Administrazioak has dezala eskatzeko. Hala

Artículo 5.- Tramitación.

1. El órgano competente para tramitar el procedimiento será el órgano que dictó el acto objeto de revisión.

2. El órgano competente para tramitar el procedimiento podrá solicitar cualquier dato o antecedente que considere necesario para elaborar la propuesta de resolución.

3. El expediente administrativo se pondrá de manifiesto al interesado y a las restantes personas a las que el acto reconoció derechos o cuyos intereses resultaron afectados por el acto, por un plazo de 15 días contados a partir del día siguiente al de la notificación de la apertura de dicho plazo, para que puedan alegar y presentar los documentos y justificantes que estimen pertinentes.

4. Concluido el trámite de audiencia, el órgano competente para tramitar el procedimiento formulará la propuesta de resolución al órgano competente para resolver.

Artículo 6.- Resolución.

1. Recibida la propuesta de resolución, se solicitará el dictamen de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava.

2. La declaración de nulidad requerirá el dictamen favorable de la Comisión Consultiva a que se refiere el apartado anterior.

3. En el ámbito de competencias de la Diputación Foral de Álava, la resolución de este procedimiento corresponderá al Consejo de Diputados.

CAPÍTULO II
PROCEDIMIENTO PARA LA DECLARACIÓN DE LESIVIDAD DE ACTOS ANULABLES

Artículo 7.- Iniciación.

El procedimiento de declaración de lesividad de actos y resoluciones favorables a los interesados que incurran en cualquier infracción del ordenamiento jurídico se iniciará de oficio mediante resolución del Director de Hacienda o responsable equivalente, por propia iniciativa a o propuesta del órgano que dictó el acto o de su superior jerárquico. El inicio de este procedimiento será notificado a cuantos aparezcan como interesados en el mismo.

Artículo 8.- Tramitación.

1. El órgano competente para la tramitación será el órgano que hubiere dictado el acto objeto de revisión, el cual emitirá un informe sobre los antecedentes que fuesen relevantes para resolver.

Asimismo, el órgano competente para tramitar el procedimiento podrá solicitar cualquier dato, antecedente o informe que considere necesario para elaborar la propuesta de resolución.

2. El expediente administrativo se pondrá de manifiesto a los interesados por un plazo de 15 días, contados a partir del día siguiente al de la notificación de la apertura de dicho plazo, para que puedan alegar y presentar los documentos y justificantes que estimen pertinentes.

3. Concluido el trámite de audiencia, el órgano competente para tramitar, antes de formular la propuesta de resolución, solicitará un informe del órgano con funciones de asesoramiento jurídico sobre la procedencia de que el acto sea declarado lesivo.

4. Formulada la propuesta de resolución, ésta se remitirá junto con el expediente completo al órgano competente para resolver.

Artículo 9.- Resolución.

1. En el ámbito de las competencias de la Diputación Foral de Álava, la declaración de lesividad corresponderá al Consejo de Diputados.

2. En el caso de declararse la lesividad, se remitirá la resolución junto con el expediente administrativo al órgano correspondiente a fin de proceder a su posterior impugnación en vía contencioso-administrativa. En el caso de la Diputación Foral de Álava este órgano será la Asesoría Jurídica.

**CAPÍTULO III**
**PROCEDIMIENTO PARA LA REVOCACIÓN**

Artículo 10.- Iniciación.

1. El procedimiento de revocación se iniciará exclusivamente de oficio, sin perjuicio de que los interesados puedan promover su iniciación a la Administración mediante escrito que dirigirán al órgano

gertatuz gero, Administrazioak interesdunen idazkia jaso izana adierazi besterik ez du egin behar. Prozeduraren hasiera interesdunei jakinaraziko zaie.

2. Zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 226. artikuluan xedatutakoaren arabera ezezta daitezke, baita bide ekonomiko-administratiboan aurkaratutakoak ere, baldin eta Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak amaiera ebazpena edo erabakia eman ez badu.

3. Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen ebazpen irmoak eta ebazpen ekonomiko-administratiboa jaso duten zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak ezin dira ezeztatu, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 219. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz.

11. artikulua.- Izapidetzea.

1. Prozedura hau izapidetzeko eskumena egintza eman duen organoak edukiko du; honek prozeduraren hasierari berri emango dio Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari.

2. Prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak beharrezkotzat jotzen dituen datu, aurrekari eta txosten guztiak eskatu ahal izango ditu.

3. Behar denean, interesdunek entzunaldia edukiko dute, 15 egun epealdiaren hasiera jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta aldi horretan nahi dituzten alegazio, agiri eta frogak aurkeztu ahal izango dituzte.

4. Entzunaldiaren izapidea amaitu ondoren, lege aholkularitzan aritzen den organoari txostena eskatuko zaio egintzaren ezeztapenaren bidezkotasunaz, beharrezkotzat joz gero.

12. artikulua.- Ebazpena.

Egintza eman duen organoak emango du ebazpena.

IV. KAPITULUA
AKATSAK ZUZENTZEKO PROZEDURA

13. artikulua.- Akatsak zuzentzeko prozedura.

1. Preskripzioaldiaren barruan, egintza edo erreklamazioaren ebazpena eman duen organoak noiznahi zuzenduko ditu, bai ofizioz bai interesdunak hala eskatuta, oker material, aritmetiko zein egitatezkoak.

2. Prozedura ofizioz hasten denean, prozedurari hasiera emateko erabakiarekin batera akatsak zuzentzeko proposamena ere jakinaraziko da, interesdunak alegazioak aurkeztu ditzan 15 eguneko epealdian, proposamena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenketa interesdunen mesederako bada, zilegi izango da prozeduraren ebazpena besterik ez jakinaraztea.

3. Prozedura interesdunak eskatuta hasiz gero, Zerga Administrazioak ebatzi ahal izango du bidezko dena, baldin eta interesdunak aurkeztutako gertaera, alegazio edo frogak baino ez badira ageri prozeduran eta horiek baino ez badira kontuan hartzen ebazpena emateko. Bestela, ebazpen proposamena interesdunari jakinarazi beharko zaio, bere eskubidearen alde egokitzat jotzen duena alegatu ahal izan dezan 15 egunetan, ebazpen proposamena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

4. Zerga Administrazioak administrazio egintza baten betearazpena eten dezake, inolako bermerik jarri gabe, baldin eta egintza ematean akats aritmetiko, material edo egitatezkoren bat gertatu dela uste badu, foru dekretu honetako 27. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz.

V. KAPITULUA
OKERREKO DIRU SARRERAK ITZULTZEKO PROZEDURA

*1. ATALA*
*XEDAPEN OROKORRAK*

14. artikulua.- Okerreko diru sarrerak itzultzeko prozedura sustatu dezaketenak eta okerreko adierazitako diru sarrerak itzultzeko eskubidearen onuradunak.

1. Okerreko diru sarrerak itzultzeko eskubidea izango dute ondoren aipatuko diren pertsona edo erakundeek:

que dictó el acto. En este último caso, la Administración quedará exclusivamente obligada a acusar recibo del escrito de los interesados. El inicio del procedimiento será notificado a los interesados.

2. Los actos de aplicación de los tributos y de imposición de sanciones podrán ser revocados conforme a lo dispuesto en el artículo 226 de la Norma Foral General Tributaria, aunque hayan sido objeto de impugnación en vía económico-administrativa, en tanto no se haya dictado una resolución o un acuerdo de terminación por el Organismo Jurídico Administrativo de Álava.

3. Las resoluciones firmes del Organismo Jurídico Administrativo de Álava, así como los actos de aplicación de los tributos y de imposición de sanciones sobre los que hubiera recaído resolución económico-administrativa, no serán susceptibles de revocación, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 219 de la Norma Foral General Tributaria.

Artículo 11.- Tramitación.

1. El órgano competente para tramitar este procedimiento será el órgano que dictó el acto y comunicará su iniciación al Organismo Jurídico Administrativo de Álava.

2. El órgano competente para tramitar el procedimiento podrá solicitar cualquier dato, antecedente o informe que considere necesario.

3. En su caso, se dará audiencia a los interesados, por un plazo de 15 días, contados a partir del día siguiente al de la notificación de la apertura de dicho plazo, para que puedan alegar y presentar los documentos y justificantes que estimen pertinentes.

4. Concluido el trámite de audiencia se solicitará, si se estima necesario, un informe del órgano con funciones de asesoramiento jurídico sobre la procedencia de la revocación del acto.

Artículo 12.- Resolución.

La resolución corresponderá al órgano que hubiera dictado el acto.

CAPÍTULO IV
PROCEDIMIENTO DE RECTIFICACIÓN DE ERRORES

Artículo 13.- Procedimiento de rectificación de errores.

1. El órgano que hubiera dictado el acto o la resolución de la reclamación rectificará en cualquier momento, de oficio o a instancia del interesado, los errores materiales, de hecho o aritméticos, siempre que no hubiera transcurrido el plazo de prescripción.

2. Cuando el procedimiento se hubiera iniciado de oficio, junto con el acuerdo de iniciación, se notificará la propuesta de rectificación para que el interesado pueda formular alegaciones en el plazo de 15 días, contados a partir del día siguiente al de la notificación de la propuesta.

Cuando la rectificación se realice en beneficio de los interesados, se podrá notificar directamente la resolución del procedimiento.

3. Cuando el procedimiento se hubiera iniciado a instancia del interesado, la Administración tributaria podrá resolver directamente lo que proceda cuando no figuren en el procedimiento, ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos, alegaciones o pruebas que los presentados por el interesado. En caso contrario, deberá notificar la propuesta de resolución para que el interesado pueda alegar lo que convenga a su derecho en el plazo de 15 días, contados a partir del día siguiente al de la notificación de la propuesta de resolución.

4. La Administración tributaria podrá suspender la ejecución del acto administrativo, sin necesidad de aportar garantía, cuando se aprecie que al dictarlo se ha podido incurrir en error aritmético, material o de hecho, conforme a lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 27 de este Decreto Foral.

CAPÍTULO V
PROCEDIMIENTO DE DEVOLUCIÓN DE INGRESOS INDEBIDOS

*SECCIÓN 1ª*
*DISPOSICIONES GENERALES*

Artículo 14.- Legitimados para instar el procedimiento de devolución de ingresos indebidos y beneficiarios del derecho a la devolución de los ingresos declarados indebidos.

1. Tendrán derecho a solicitar la devolución de ingresos indebidos las siguientes personas o entidades:

a) Zerga betebeharrak betetzean edo zehapenak ordaintzean Zerga Administrazioari okerreko diru sarrerak egin dizkioten zergapekoek eta arau hausleek, eta hauen oinordekoek.

b) Aurreko a) letran aipatutako pertsona eta erakundeez gainera, atxikipenak edo konturako ordainketak bide ez dela jasan dituztela uste duten pertsonek eta erakundeek. Aldiz, bidegabekotzat jotzen den konturako sarrera besteri jasanarazi ez bazaio, aurreko a) letran aipatutako pertsonek eta erakundeek edukiko dute itzulketa eskatzeko eskubidea.

c) Okerreko diru sarrera legez jasanarazi beharreko zerga bati badagokio, aurreko a) letran aipatutako pertsona eta erakundeez gainera jasanarazpena jasan duen pertsonak edo erakundeak.

2. Okerreko adierazitako diru sarrerak itzultzeko eskubidea edukiko dute ondoko pertsona eta erakunde hauek:

a) Okerreko diru sarrerak egin dizkioten zergapekoek eta arau hausleek, idatz zati honetako b) eta c) letretan azaldutako kasuetan izan ezik, eta haien oinordekoek.

b) Atxikipena edo konturako sarrera jasan duten pertsonek eta erakundeek, okerreko diru sarrera jasandako atxikipen bati edo jasanarazitako konturako sarrera bati badagokio. Itzulketa ez da bidezkoa izango okerrekotzat jo den atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa autolikidazio batean kendu bada edo Administrazioak kontuan hartu badu likidazio edo itzulketa batean.

Okerreko konturako sarrera besteri jasanarazi ez bazaio, aurreko a) letran aipatutako pertsonek eta erakundeek edukiko dute itzulketa eskatzeko eskubidea. Itzulketa ez da bidezkoa izango konturako sarreraren zenbatekoa autolikidazio batean kendu bada edo Administrazioak kontuan hartu badu likidazio edo itzulketa batean; nolanahi ere, horrek ez du eragotziko errentaren jasotzaileak okerreko konturako sarrera egin duen pertsonari edo erakundeari kalteak ordaindu behar izatea.

c) Jasanarazpena jasan duen pertsonak edo erakundeak, baldin eta okerreko diru sarrera legez beste pertsona edo erakunde batzuei jasanarazi beharreko zerga bati badagokio. Hala ere, itzulketa egiteko ezinbestekoa da ondokoak betetzea:

1. Zergaren zenbatekoa fakturaren edo ordezko agiriaren bidez jasanarazi izana, zergari buruzko arautegian hala ezarrita badago.

2. Oker jasanarazitako kuotak sartu izana. Eragiketen hartzaileak jasanarazpena jasan badu eta jasan edo ordaindutako kuotengatik kenkarirako eskubidea badauka, oker jasanarazitako kuotak sartu direla ulertuko da baldin eta haiek jasanarazi zituenak behar bezala jaso baditu zergaren autolikidazioan, honen emaitza gorabehera.

3. Oker jasanarazi diren eta itzultzeko eskatzen diren kuotak Zerga Administrazioak haiek jasan zituenei edo hirugarren bati itzuli ez izana.

4. Jasanarazpena jasan duen zergapekoak jasandako kuoten itzulketarako eskubiderik ez edukitzea. Kenkarirako eskubidea partziala bada, ezin kendu izan den zenbatekoa bakarrik itzuliko da.

3. Artikulu honetako 1. idatz zatiko b) eta c) letretan aipatutako kasuetan, atxikipena edo konturako sarrera edo zergaren jasanarazpena oker jasan duen zergapekoak okerreko diru sarreraren itzulketa eskatu ahal izango du, eta okerreko diru sarrera egiteko erabilitako autolikidazioa zuzentzeko eskatuko du.

4. Okerreko diru sarreren itzulketa kuotak jasanarazi dituen atxikitzaileak edo zergapekoak eskatu badu edo foru dekretu honetako 15. artikuluan ezarritako prozeduretako batean erabaki bada, itzulketa zuzenean egingo zaio atxikipena edo jasanarazpena oker jasan duen pertsona edo erakundeari.

a) Los obligados tributarios y los sujetos infractores que hubieran realizado ingresos indebidos en la Administración tributaria con ocasión del cumplimiento de sus obligaciones tributarias o del pago de sanciones, así como los sucesores de unos y otros.

b) Además de las personas o entidades a que se refiere la letra a) anterior, la persona o entidad que haya soportado la retención o el ingreso a cuenta repercutido cuando consideren que la retención soportada o el ingreso repercutido lo ha sido indebidamente. Si, por el contrario, el ingreso a cuenta que se considere indebido no hubiese sido repercutido, tendrán derecho a solicitar la devolución las personas o entidades indicadas en la citada letra a) anterior.

c) Cuando el ingreso indebido se refiera a tributos para los cuales exista una obligación legal de repercusión, además de las personas o entidades a que se refiere la letra a) anterior, la persona o entidad que haya soportado la repercusión.

2. Tendrán derecho a obtener la devolución de los ingresos declarados indebidos las siguientes personas o entidades:

a) Los obligados tributarios y los sujetos infractores que hubieran realizado el ingreso indebido, salvo en los casos previstos en las letras b) y c) de este apartado, así como los sucesores de unos y otros.

b) La persona o entidad que haya soportado la retención o el ingreso a cuenta, cuando el ingreso indebido se refiera a retenciones soportadas o ingresos a cuenta repercutidos. No procederá restitución alguna cuando el importe de la retención o ingreso a cuenta declarado indebido hubiese sido deducido en una autoliquidación o hubiese sido tenido en cuenta por la Administración en una liquidación o en una devolución.

Cuando el ingreso a cuenta declarado indebido no hubiese sido repercutido, tendrán derecho a obtener la devolución las personas o entidades indicadas en la letra a) anterior. No procederá restitución alguna cuando el importe del ingreso a cuenta hubiese sido deducido en una autoliquidación o hubiese sido tenido en cuenta por la Administración en una liquidación o en una devolución, sin perjuicio de las actuaciones que deba desarrollar el perceptor de la renta para resarcir a la persona o entidad que realizó el ingreso a cuenta indebido.

c) La persona o entidad que haya soportado la repercusión, cuando el ingreso indebido se refiera a tributos que deban ser legalmente repercutidos a otras personas o entidades. No obstante, únicamente procederá la devolución cuando concurran los siguientes requisitos:

1º. Que la repercusión del importe del tributo se haya efectuado mediante factura o documento sustitutivo cuando así lo establezca la normativa reguladora del tributo.

2º. Que las cuotas indebidamente repercutidas hayan sido ingresadas. En los tributos en los que el destinatario de las operaciones que haya soportado la repercusión tenga derecho a la deducción de las cuotas soportadas o satisfechas, se entenderá que las cuotas indebidamente repercutidas han sido ingresadas cuando quien las repercutió las hubiese consignado debidamente en su autoliquidación del tributo, con independencia del resultado de dicha autoliquidación.

3º. Que las cuotas indebidamente repercutidas y cuya devolución se solicita no hayan sido devueltas por la Administración tributaria a quien se repercutieron o a un tercero.

4º. Que el obligado tributario que haya soportado la repercusión no tuviese derecho a la deducción de las cuotas soportadas. En el caso de que el derecho a la deducción fuera parcial, la devolución se limitará al importe que no hubiese resultado deducible.

3. En los supuestos previstos en las letras b) y c) del apartado 1 de este artículo, el obligado tributario que hubiese soportado indebidamente la retención o el ingreso a cuenta o la repercusión del tributo podrá solicitar la devolución del ingreso indebido instando la rectificación de la autoliquidación mediante la que se hubiese realizado el ingreso indebido.

4. Cuando la devolución de dichos ingresos indebidos hubiese sido solicitada por el retenedor o el obligado tributario que repercutió las cuotas o hubiese sido acordada en alguno de los procedimientos previstos en el artículo 15 del presente Decreto Foral, la devolución se realizará directamente a la persona o entidad que hubiese soportado indebidamente la retención o repercusión.

5. Itzulketarako eskubidea oinordekoei badagokie, berariazko araudia aplikatuko da itzulketa nortzuek eska dezaketen, onuradunak nortzuk diren eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko.

15. artikulua.- Diru sarrerak itzuli behar diren kasuak.

1. Okerreko diru sarreren itzulketarako eskubidea aintzatetsi ahal izango da ondoko kasuetan:

a) Kapitulu honetako 2. atalean arautuko eskubidea aintzatesteko prozeduran, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 228. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako kasuetan.

b) Berrikuspen prozedura berezietan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoari lotuta.

c) Administrazio errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpen edo epaile ebazpen irmoen bitartez.

d) Zergak aplikatzeko prozeduretan.

e) Autolikidazioa zergapekoak edo beste zergapeko batek eskatuta zuzentzeko prozeduretan, aurreko artikuluko 3. idatz zatian azaldutako kasuan.

f) Zergen arloko araudian ezarritako gainerako prozedura guztien bitartez.

2. Okerreko diru sarrerak efektu tinbredunen bitartez itzultzeko prozedura Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren bitartez arautuko da.

16. artikulua.- Okerreko diru sarreren itzulketarako eskubidearen edukia.

Okerreko diru sarrera baten ondorioz kopuru hauek itzuli behar dira:

a) Okerreko diru sarreraren zenbatekoa.

b) Okerreko diru sarrera premiamendu prozedura batean egin bada, ordaindutako kostuak.

c) Oker sartutako kopuruak eska daitekeen aldian sortutako berandutze korrituak. Zergapekoak ez du eskatu beharrik izango, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 32. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera.

### *2. ATALA*
### *OKERREKO DIRU SARRERAK ITZULTZEKO ESKUBIDEA AINTZATESTEKO PROZEDURA, ZERGEI BURUZKO FORU ARAU OROKORREKO 228.1. ARTIKULUAN AIPATUTAKO KASUETAN*

17. artikulua.- Prozedura hastea.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 228. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako kasuetan, okerreko diru sarrerak itzultzeko eskubidea aintzatesteko prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta has daiteke.

2. Prozedura interesdunak eskatuta hasten bada, eskabidea Zerga Administrazioari bidali behar zaio. Bertan, foru dekretu honetako 2. artikuluan adierazitako datuak jartzeaz gainera, okerreko diru sarreraren justifikazioa agertu behar da. Horretarako, itzulketarako eskubidea frogatzen duten agiriak eta egokitzat jotzen diren beste frogabide guztiak erantsiko zaizkio eskabideari. Diru sarreraren egiaztagirien ordez egindako diru sarrera identifikatzeko datu zehatzak jarri ahal izango dira, besteak beste, sarrera egin den eguna eta tokia eta haren zenbatekoa.

3. Prozedura ofizioz hasten bada, interesdunari jakinaraziko zaio hura hasteko hartutako erabakia.

Zerga Administrazioak dauzkan datuak nahiko badira ebazpen proposamena egiteko, prozedura proposamena jakinarazita has daiteke.

18. artikulua.- Izapidetzea.

1. Espedientea izapidetzean, Zerga Administrazioak itzulketarako eskubidea dakarten inguruabarrak gertatu direla, diru sarrera egin dela eta ez dela itzuli egiaztatu egingo du, bai eta eskubidearen titularra nor den eta zenbat itzuli behar den ere.

2. Gainera, Zerga Administrazioak interesdunei edo, bestela, hirugarrenei agindeiak egin ahal izango dizkie eman behar duten informazio orokorra aurkez dezaten edo egiaztagiri egokien bidez berrets dezaten.

5. Cuando el derecho a la devolución corresponda a los sucesores, se atenderá a la normativa específica para determinar los legitimados para solicitar la devolución y sus beneficiarios y la cuantía que a cada uno corresponda.

Artículo 15.- Supuestos de devolución.

1. El derecho a obtener la devolución de ingresos indebidos podrá reconocerse:

a) En el procedimiento para el reconocimiento del derecho regulado en la Sección 2ª de este Capítulo, cuando se trate de los supuestos previstos en el apartado 1 del artículo 228 de la Norma Foral General Tributaria.

b) En un procedimiento especial de revisión en los términos de la Norma Foral General Tributaria.

c) En virtud de la resolución de un recurso administrativo, reclamación económico-administrativa o resolución judicial firmes.

d) En un procedimiento de aplicación de los tributos.

e) En un procedimiento de rectificación de autoliquidación a instancia del obligado tributario o de otros obligados en el supuesto previsto en el apartado 3 del artículo anterior.

f) Por cualquier otro procedimiento establecido en la normativa tributaria.

2. El procedimiento para la devolución de ingresos indebidos mediante el empleo de efectos timbrados se regulará mediante Orden Foral del Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Artículo 16.- Contenido del derecho a la devolución de ingresos indebidos.

La cantidad a devolver como consecuencia de un ingreso indebido estará constituida por la suma de las siguientes cantidades:

a) El importe del ingreso indebidamente efectuado.

b) Las costas satisfechas cuando el ingreso indebido se hubiera realizado durante el procedimiento de apremio.

c) El interés de demora, vigente a lo largo del período en que resulte exigible, sobre las cantidades indebidamente ingresadas, sin necesidad de que el obligado tributario lo solicite, de acuerdo con lo previsto en el apartado 2 del artículo 32 de la Norma Foral General Tributaria.

### *SECCIÓN 2ª*
### *PROCEDIMIENTO PARA EL RECONOCIMIENTO DEL DERECHO A LA DEVOLUCIÓN DE INGRESOS INDEBIDOS EN LOS SUPUESTOS A QUE SE REFIERE EL ARTÍCULO 228.1 DE LA NORMA FORAL GENERAL TRIBUTARIA*

Artículo 17.- Iniciación.

1. En los supuestos previstos en el apartado 1 del artículo 228 de la Norma Foral General Tributaria, el procedimiento para el reconocimiento del derecho a la devolución de ingresos indebidos podrá iniciarse de oficio o a instancia del interesado.

2. Cuando el procedimiento se inicie a instancia del interesado, la solicitud deberá dirigirse a la Administración tributaria y, además de las menciones a que se refiere el artículo 2 del presente Decreto Foral, contendrá la justificación del ingreso indebido. A tal efecto, a la solicitud se adjuntarán los documentos que acrediten el derecho a la devolución, así como cuantos elementos de prueba se consideren oportunos a tal efecto. Los justificantes de ingreso podrán sustituirse por la mención exacta de los datos identificativos del ingreso realizado, entre ellos, la fecha y el lugar del ingreso y su importe.

3. Cuando el procedimiento se inicie de oficio, se notificará al interesado el acuerdo de iniciación.

